

Kultura

Civivox Sarea

Civivox zentroen sarea Iruñeko Udaleko Hezkuntza eta Kultura alorrak kudeatzen du eta, 2014an, guztira 634.827 erabiltzaile izan zituen; haietatik % 55,6k udal-programaren 1.267 ekitaldietako batean parte hartu zuten, eta gainerako % 44,4k, berriz, esparruak lagatzeko zerbitzuak erabili zituzten. Sarea Kondestable, Zabalguneako, Iturramako, Juslarrochako, Mendillorriko, Milagrosako eta Sanduzelako zentroek osatzen dute.

Civivoxek, guztira, 553 entitateri laga zizkieten esparruak, eta haietan guztira 281.457 parte-hartzaile izan ziren, eta 25.785 erabilera-ordu izan ziren.

2014ko. parte- hartzaileak	Udalaren programak	Espazio- lagapenak	Udal-intereseko lagapenak	GUZTIRA
Kondestablea	93.508	37.263	18.232	149.003
Zabalgunea	26.199	4.613	950	31.762
Iturrama	100.923	109.665	7.881	218.469
Juslarrocha	26.691	48.192	2.554	77.437
Mendillorri	33.511	16.722	4.268	54.501
Milagrosa	16.889	5.111	878	22.878
Sanduzelai	27.751	22.057	3.071	52.879
Atari zabalean	27.898			27.898
Guztira	353.370	243.623	37.834	634.827

GUZTIRA Lagapenak	Entitateak	Erabilerak	Orduak	Erabiltzaileak
2014ko urtarrila-abendua				

Kondestablea	105	2.361	5.296	55.495
Zabalgunea	33	330	566	5.563
Iturrama	123	4.230	6.933	117.546
Juslarrocha	119	2.489	5.894	50.746
Mendillorri	62	903	2.113	20.990
Milagrosa	30	445	810	5.989
Sanduzelai	81	1.461	4.174	25.128
Guztira	553	12.219	25.785,20	281.457

2014an, 1.267 **jarduera** antolatu ziren. Haien artean, diziplina ugariri buruzko ikastaro sorta zabala eskaintzen da, hala nola dantza, kirola, sukaldaritza, literatura; buruaren eta gorputzaren ongizatea, edo musika, beste askoren artean. Zehazki, 634 ikastaro eskaini ziren, eta 139.483 lagunek parte hartu zuten. Era berean, Civivox sarean egindako 98 tertulia eta hitzaldietara 4.000 lagun baino gehiago bertaratu ziren; eta antolaturiko 76 txango eta bisita gidatuetara, berriz, 2.230 herritar joan ziren. Udal-zentro horietan egiten diren bestelako proposamenen artean, jai eta ikuskizun batzuk aipatu behar dira; haietan, ia 40.000 lagunek parte hartu zuten. Bestalde, lehiaketetan (argazkia, gozogintza, eguberrietako txartelak eta marrazkia, kasu) 3.399k eman zuten izena. Erakusketa-eskaintza ere da aipatzekoa, urte osoan egiten baitira zazpi zentroetan. 2014an, ia 100.000 bisitari izan zituzten. Guztira, 353.370 lagunek parte hartu zuten Civivoxetako jardueretako batean.

Jarduerak, guztira 2014ko urtarrila- ekaina	Ikastaroak	Solasaldiak /Hitzaldiak	Txangoak /Bisitak	Festak / Ikuskizunak	Lehiaketak	Erakusketak	Zinema	Beste jarduera batzuk	Jarduerak, guztira
Kondestable	87	26	11	43	1	26	2	46	242
Zabalgunea	97	17	11	15	--	9	1	--	150
Iturrama	204	9	11	44	--	9	12	--	289
Juslarrocha	62	11	11	19	2	9	6	2	122
Mendillorri	78	14	11	33	1	10	7	21	175
Milagrosa	42	11	11	13	--	10	--	12	99
Sanduzelai	60	10	10	31	1	12	8	3	135
Atari zabalean / Besteak	4	--	--	25	4	--	22	--	55
Guztira	634	98	76	223	9	85	58	84	1.267

Parte- hartzaileak, guztira 2011ko urtarrila-ekaina	Ikasta- roetan izen emanda	Parte- hartzaileak ikastaro- etan	Solasaldi Hitzal- dietan	Txango Bisitetan	Festa Ikuskizu- netan	Lehiakete- tan	Erakuske- tetan	Zineman	Beste jarduera batzue-tan	PAI	Bainu- etxearen erabilera libreak	Jarduerak guztira
Kondestablea	1.909	13.795	1.291	319	6.463	486	60.627	219	617	9.691	--	93.508
Zabalgunea	1.357	17.922	655	319	631	486	5.080	20	--	1.086	--	26.199
Iturrama	3.642	50.935	520	319	7.437	486	8.100	773	--	3.499	28.854	100.923
Juslarrocha	1.220	14.877	396	168	2.493	485	5.844	802	14	1.462	--	26.199
Mendillorri	1.378	17.642	392	168	3.041	485	7.695	157	269	3.512	--	100.923
Milagrosa	754	9.937	513	168	651	485	4.052	--	201	732	--	26.691
Sanduzelai	1.120	13.543	327	319	2.569	486	7.714	247	38	2.508	--	33.511
Atari zabalean /Besteak	104	832	--	--	16.690	--	--	10.376	--	--	--	16.889
Guztira	11.484	139.483	4.094	2.230	39.975	3.399	99.112	12.594	1.139	22.490	28.854	353.370

Erakusketak

Arte plastikoen erakusketa-programak -Udalak antolatutarik- 2013an baino erakusketa gehiago eskaini zituen 2014an; 63, guztira (aurreko urtean baino 13 gehiago). Horren eraginda, bisitari kopurua nabarmen handitu zen, 2013an 117.262 izan baitziren, eta iaz, berriz, 163.125.

Erakusketa gehienak Ziudadelako zazpi aretoetan egin ziren; 55, hain zuzen. Gero, 3 Rodezno Kondearen aretoan, eta beste 5, Kondestablearen Jauregian. Bana beste, 1.500-2.500 bisitari izan ziren erakusketa bakoitzeko, baina bisitari kopurua askoz ere handiagoa izan zen erakusketa batzuetan. Zehazki, alde handiz da nabarmentzekoa Antonio Laita pintorearena, 9.530 bisita izan baitzituen; ondoren, Pedro Salaberrirena (6.988), Nafarroako Komikiaren V. Erakusketa (6.889), Guillermo Navaroren argazki-erakusketa (6.164) eta Ciga eta Paris erakusketa (6.188). Jende asko erakarri zuten, halaber, Xabier Morrásen erakusketak (5.828 bisitari); Sanferminetako urteroko kartelenak, (5.086); eta Álvarez Sotos argazki-bildumak (5.095).

Bestalde, erakusketa gehien inguruan bestelako jarduerak egin ziren, hala nola bisita gidatuak, solasaldiak edo kontzertuak, bai eta Udalak argitaratutako katalogo bat ere. Horrez gain, hiruhilekoan behingo lau foileto plazaratu dira, antolatutako erakusketen berri emateko. Foiletoak, halaber, udalaren webean jarri ziren ikusgai.

2.000 bisitaritik gorako erakusketak

ERAKUSKETA	ARETOA ETA DATAK	ZENBAT BISITARI
Senegal Sorkuntza-lan garaikideak	Armen Aretoa 1. 11/28 – 01/26	2.693
Juan José Aquerreta Fotomatoneko Ángel	Labea 12/13 – 01/26	2.226

Liburutegiak

Hirian **bederatzi liburutegi publiko** dira eta Nafarroako Gobernuarekin egindako hitzarmenaren bidez kudeatzen dira: Txantrea, Etxabakoitz, Iturrama, Mendillorri, Milagrosa, Sanduzelai, San Pedro, Yamaguchi eta San Frantzisko. 2014an, 522.945 lagun **bisita** jaso zuten; hau da, aurreko urtean baino zertxobait gutxiago (% 2 gutxiago). San Frantziskoko liburutegi publikoak jaso zuen bisitarik gehien; 106.680, hain zuzen.

2014an, Mendillorrikoak 80.000tik gora bisita izan zituen; Txantreakoak, Sanduzelaikoak,

San Pedrokoak eta Yamaguchikoak, berriz, 50-60.000 bisitari inguru. Azkenik, alde handira, Milagrosakoa (35.000 bisita) eta Etxabakoitz daude (2.806 bisita).

Liburutegietan, guztira, 49.597 **lagun daude izen emanik**; horietatik 12.538 Yamaguchikoan, izena emanik dauden erabiltzaile gehien baititu. Gero, alde handira, Txantreakoa -7.259-, San Pedrokoa -6.900-, Milagrosakoa -5.610-, Iturramakoa -5.318-, Mendillorrikoa -5.051- eta Sanduzelaikoa -4.257- daude. San Frantziskoko liburutegian 1.349 lagun daude izena emanik, eta Etxabakoizkoa erabiltzen da gutxien, 609 lagun baitaude izena emanik.

Liburutegi guztietan, erabiltzaile kopuruak gora egin zuen, baina San Pedrokoa da nabarmentzekoa, 333 erabiltzaile berri baititu; hau da, % 33 inguru egin du gora. Guztira, 2014an, 1.906 lagunetan egin zuen gora erabiltzaile kopuruak liburutegietan; hau da, % 3,84n.

Biblioteca	Visitante	Altas nuevos usuarios 2014			Total Usuarios Inscritos			Usuarios Internet
		Infantil	Adultos	Total	Infantil	Adultos	Total	
Chantrea	67.623	90	145	235	1.039	6.220	7.259	8.765
Echavacoiz	2.806	4	5	9	83	521	604	1.249
Iturrama	64.391	77	163	240	720	4.598	5.318	11.925
Mendillorri	81.047	90	101	191	1.095	3.976	5.051	7.782
Milagrosa	35.000	62	144	206	711	5.610	6.321	7.960
San Francisco	106.680	131	202	333	404	945	1.349	19.019
San Jorge	51.024	88	127	215	758	3.499	4.257	6.883
San Pedro	54.697	147	150	297	1.442	5.458	6.900	10.313
Yamaguchi	59.677	43	137	180	698	11.840	12.538	13.503
Total	522.945	732	1.174	1.906	6.950	42.667	49.597	87.399

2014an, liburutegietan, guztira, 214.014 **mailegu** egin zitzaizkien erabiltzaileei; hau da, 2013an baino 24.455 unitate gutxiago. Horrek esan nahi du % 11,42 egin zuela behera 2013ko datuen aldean. Maileguak liburutegi guztietan jaitsi ziren, San Frantziskokoan izan ezik, % 10 gehiago egin baitziren. San Frantziskoko liburutegiko 33.975 maileguak dira nabarmentzekoak; gero, Yamaguchi (32.004) eta Iturrama (30.652) datoz.

Beste datu esanguratsu bat: udal-liburutegiek egindako mailegu guztien % 57 liburuak izan ziren. Bestelako maileguek, ordea, behera egin zuten, hala nola ikus-entzunezkoek eta dokumentu soinu-dunak. Hala ere, zenbait liburutegitan, DVDen mailegua liburuarekin parekatzen ari da; Iturraman eta San Frantziskon, adibidez.

Gainera, 87.000tik gora lagunek liburutegietako ordenagailuak erabili zituzten; gehienbat, Interneten sartzeko.

Biblioteca	Libros	Revistas	Sonoros	Audiovisual	Electronicos	Resto	Total
Chantrea	14.898	264	1.399	8.974	92	0	25.627
Echavacoiz	872	0	0	158	7	5	1.042
Iturrama	15.602	441	2.081	12.387	140	1	30.652
Mendillorri	15.421	465	626	10.600	123	0	27.235
Milagrosa	11.449	260	358	6.624	19	0	18.710
San Francisco	16.172	242	1.714	15.754	74	19	33.975
San Jorge	10.618	221	359	4.832	105	0	16.135
San Pedro	19.023	273	745	8.261	318	14	28.634
Yamaguchi	18.409	315	1.005	11.480	81	714	32.004
TOTAL	122.464	2.481	8.287	79.070	959	753	214.014

Bestalde, udal-liburutegiek doako 314 **jarduera egin zituzten urte osoan irakurzaletasuna bultzatzeko**, bai haurrentzat bai helduentzat, eta guztira, 22.099 lagunek parte hartu zuten. Horietako bat irakurketa-taldeak dira; 17 daude, hain zuzen ere. Sanduzelaiko liburutegiak, halaber, zinema-talde bat dauka, eta urtean bederatzi hilabetez biltzen da.

Nabarmentzekoak dira, halaber, Milagrosan, San Frantziskon eta San Pedron hilean behin egiten diren ipuin-kontalari saioak, gaztelaniaz nahiz euskaraz, baita Yamaguchiko kamishibai saioak ere. Yamaguchin, halaber, literaturaz mintzatzeko tertuliak egiten dira Japoniari buruz, komikiari buruz, eta Haikunversaciones izeneko saioak ere bai. Azkenik, Txantreako eta Sanduzelaiko liburutegietan efemerideei loturiko kultur jarduera batzuk egiten dituzte, hala nola Emakumeen Nazioarteko Egunaren karira (martxoak 8), eta lankidetzan aritzen dira film laburren Mortzinema Lehiaketan. Bestalde, San Frantziskon, San Pedron, Txantrean, Yamaguchin eta Mendillorrin hainbat ekitaldi egiten dituzte Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko (apirilak 23).

2014an, bestalde, ekimen berri bat abiarazi zen Yamaguchiko liburutegi publikoan; hots, *liburutegia etxea*. Etxez etxeko mailegutza-zerbitzua da Donibane, Mendebaldea eta Ermitagaña auzoetan, mugikortasun urrituko jendearentzat eta liburutegira joateko zailtasunak duen jendearentzat. Bestalde, Iturramako liburutegiak zineforum bat estreinatu zuen.

Lehiaketak

Iruñeko Udaleko Hezkuntza eta Kultura alorrak, bestalde, hainbat lehiaketa bultzatzen ditu. Horietako bat **Sanferminak iragartzeko kartela** aukeratzekoa da. 2014an, Ignacio Doménech Alacanteko diseinatzailerean *Equipazo* lanak irabazi zuen bozketa, herri-bozketan parte hartutako 3.474 iruindarren % 25,3k aukeratuta. Bozketa epaimahaiak aukeratutako zortzi finalistek artean egin zen. Irabazleak lehiaketako saria irabazi zuen: 3.600 euro, alegia.

2014ko edizioan, 546 lan aurkeztu ziren. Horietatik, % 37,5 Iruñekoak ziren (205), eta 112 (% 20,5), berriz, Nafarroako gainerako herrietakoak. Beraz, aurkeztutako lan guztien % 58 Nafarroatik zetozen. Era berean, 217 kartel (% 39,7) Espainiako autonomia guztietatik iritsi ziren, Balearretatik izan ezik. Zehazki, 55 lan EAetik iritsi ziren; 30, Valentziako Erkidegotik eta Madrildik; 25, Kataluniatik; 20, Gaztela eta Leonetik; 15, Andaluziatik, eta 12, Aragoitik. Atzerititik 12 kartel jaso ziren (% 2,2). Zortzi herrialdeetatik iritsi ziren; hiru Erresuma Batutik eta Frantziatik; eta bana, Alemania, Andorra, Argentina, Kolonbia, AEB eta Poloniatik.

Iruñeko Udalak, halaber, **Iruña marraztu eskola-lehiaketa** bultzatzen du. Hamalagarren edizioan, Udaletxean eta

inguruan egin zen. Lehiaketa honen bidez sormen artistikoa eta hiriaren ezaguera sustatu nahi dira, Iruñeko Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, eta Nafarroako Unibertsitateko Arkitektura Eskolarekin elkarlanean garatzen da, zeinak ikasleak eta ikastetxeak aholkatzen baititu marrazkiak egin eta aukeratzeko. 2014ko edizioan, 19 ikastetxetako ikasleek parte hartu zuten, eta hala irabazleek nola haien ikastetxeek eskola-materilaz hornituriko loteak eskuratu zituzten.

Udalaren programak

Kultura Alorrek kontzertu-ziklo batzuk antolatzen ditu urtero, eta guztiak finkaturik daude hiriko kultur programazioan, hala nola *Ziudadelartea*; *Musika, otoitz egiteko garaian*; *Europako Musika Eguna*; *Jazza, kalean*; edota *Eguberrietako kontzertuak*. Udalaren programen artean, Sanferminak eta Aldapako Sanferminak barne, ia 1.425.000 parte-hartzaile izan ziren. Ziklorik jendetsuenetako bat ***Musika, otoitz egiteko garaian*** izaten da, Aste Santuaren inguruan egiten dena. 2014an, hamabi kontzertu eta hiru mintzaldi eman ziren hiriko hainbat elizatan eta, guztira, 5.675 lagun inguru bertaratu ziren. **Batasunaren Pribilegioaren** karira, ekitaldi asko antolatzen dira irailean. Iaz, 8.700 lagun inguruk parte hartu zuten. Bestalde, **Hemengo antzerkiaren erakustaldia** zikloko antzezpenek 3.575 ikusle bildu zituzten.

Ziudadelan eta harresietan, berriz ere egin zen ***Ziudadelartea*** uda partean, Ziudadelak eta harresiek duten balioa nabarmendu eta handitzeko, eta aldi berean, jende guztiarendako programazio askotarikoa eskaintzeko. 2014an, dantza bertikaleko ikuskizunak, musika-kontzertuak (jazza, fusioa, flamenkoa, indie musika) eta munduko dantzen hainbat ikuskizun eman ziren eta, horrez gain, film musikalen ziklo bat eta erakusketak programatu ziren. Nobedade gisa, lau piknik musikal egin ziren Ziudadelako, Taconerako, Arantzadiko eta Arrosadiko parkeetan; hots, herritarrendako emanaldiak, musika, puzgarriak eta piknik librea. Ziudadelarteak, guztira, ia 52.000 lagun erakarri zituen; hau da, aurreko urtean baino % 13 gehiago.

Bukatzeko, Iruñeko Udalak **Eguberrietarako programa** bat proposatzen du urtero, udaleko hainbat alorrek prestatuturik; iazkoan, 130 jarduera baino gehiago egin ziren. Kontzertuek, antzerkiak, hitzaldiak, zinemak, lantegiek eta merkatu txikiek osaturiko programazio zabala izan zen adin guztietarako, 2015eko urtarrilaren 8ra bitarte egindakoa. Ekitaldiak hainbat agertokitan egin ziren, hala nola Civivox zentroetan, Gazteriaren Etxean, Ingurumen Heziketarako Museoa, Gayarre Antzokian, bai eta hiriko kale eta plazetan ere, zeinak musikaz eta jardueraz bete baitziren.

Programak	Ekitaldi-kopurua.	Parte-hartzaileak
Musika otoitz egiteko garaian	12	5.675
Jazza, kalean	4	1.700
Europako Musika Eguna	2	2.000
Dantzaldia, txistulari eta gaitariekin.	18	2.250

Ziudadelartea		51.966
Batasunaren Pribilegioa	5	8.700
Hemengo antzerkiaren erakustaldia	15	3.575
Eguberriak	34	13.495
La Pamplonesa banda	29	11.772
Sanferminak	443	1.297.856
Aldapako San Fermin	19	25.750
GUZTIRA	592	1.424.739

Diru-laguntzak eta lankidetza-programak

Jarduerak antolatzeaz gain, Udalak profesionalak ez diren talde artistikoak sustatzen ditu, entitateei diru-laguntzak ematen dizkie kultur jarduerak antolatzeko, eta hitzarmenak sinatzen ditu entitateekin eta musika- zein arte-taldeekin.

Horren haritik, beste entitate batzuekin aritzen da lankidetzan, elkarrekin programak prestatzeko. Honatx: errondailen bilkura Rondalla Armonía-rekin, San Pedrada, Baionako jaiak, Jaiotzazaleen elkartea, Meza Flamenkoa edo Festival 360.

Era berean, Udalak hitzarmena sinatu zuen Olentzeroren Adiskideak Elkartearekin, eta hiriko beste arte-entitate batzuekiko konpromisoak mantendu zituen, hala nola La Pamplonesa, gaiteroak, txistulariak eta udal-dantzariak.

Gainera, 379.864 euroko diru-laguntza eman zien 27 entitateri kultur eta arte-jarduerak 2014an egiteko. Deialdiak bi laguntza-ildo ditu: bata, ekoizpen-jardueretarako, eta bestea, kultura sustatzeko eta/edo zabaltzeko proiektuetarako.

2014an diruz lagundutako entitateak

A EPIGRAFEA (EKOIZPENA)	EURO
Iruñeko Ganbera Abesbatza	20.025,76
E 7.2 Elkartea	981,49
Gayarre Operaren Adiskideen Elkartea (AGAO)	20.668,12
Nafarroako Ganbera Opera Elkartea	20.668,12

Belar Gorria Elkartea	4.181,16
Nafarroako Ganbera Abesbatza	3.844,27
El Colectivo Nafarroako Antzerki Eskola	20.668,12
Nafarroako Abesbatzen Federazioa	8.267,25
Atena Fundazioa	7.275,18
Pablo Sarasate Fundazioa	41.336,24
Nafarroako dantzarien Biltzarra	1.200,40
Iruñeko Orfeoia	41.336,24
	190.452,35
B EPIGRAFEA (ZABALKUNDEA)	
Arquetipo Comunicación SL	6.242,13
Errege Magoen Desfilearen Elkartea	50.000
Nafarroako kazetarien elkartea	1.807,98
Artearen Adiskideak musika-elkartea	3.293,20
Nafarroako Retina elkartea	1.218,30
Tiza elkartea	13.000
Nafar Ateneoa	15.849,81
En clave audiovisual.	2.460
Jaunaren Nekaldiaren Ermandadea	12.269,80
Navarra de cine	25.000

Ortzadar Euskal Folklore Elkartea	2.640
Nafarroako Ikerketa Historikoen Elkartea (SEHN)	5.203,53
Elkarte Hispano-alemana	426,90
Nafarroako Unibertsitatea	25.000
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	25.000
	189.411,65
GUZTIRA	379.864

Euskara

Euskara-unitateak bere programak antolatzen ditu helduentzat eta haurrentzat, eta horretaz gainera, baita sormen tailerrak, lehiaketak eta literatur lehiaketak ere. Era berean, *Ze Berri?* aldizkaria argitaratzen da, beste udal batzuekin batera, eta kultur entitateen artean diru-laguntza banatzeko hainbat deialdi egiten dira, euskarazko jarduerak egiteko.

Helduendako kultur programazioak 3.009 lagun bildu zituen, 2014an, Udalak antolatutako 28 jardueretako batera bertaratu baitziren. Nafarroako Antzerki Eskolarekiko hitzarmenaren bidez, *Antzerki Aroa* zikloaren barruan bi antzezlan eman ziren, *Larrazken Antzerkia* programaz gainera, zuzenean Iturramako Civivoxean antolatua, eta beste bi antzezlan proposatu zituen. Guztira, 258 ikusle bildu ziren. Horrez gain, formatu txikiko sei kontzertu egin ziren *Kantu eta Hitza* autore-kantuaren barruan. 788 lagun bertaratu ziren. Horiei beste 1.260 ikusle gehitu behar zaizkie, *Bertsoaroa* bertsolaritza-programako emanaldietako batera joan baitziren. Azkenik, Nafar Ateneoarekin elkarlanean, euskarazko bederatzi hitzaldi eta errezitaldi antolatu ziren, zeinetan 510 lagun bildu baitziren, eta *Irri zikloaren* barnean, umorezko hiru ikuskizun egin ziren, 193 ikusle bildu zirela.

Euskarazko haur programazioari dagokionez, 16 jarduera antolatu ziren, gehienbat antzezpenak, Civivox zentroetan, Ziudadelan eta Nafarroako Antzerki Eskolan. Guztira, 4.689 ikusle bertaratu ziren. Antzezpen horien artean, haurrendako antzerki-testuen Lehiaketako lan irabazlearen sei emanaldiak aipatu behar dira, Nafarroako Antzerki Eskolak ekoizitakoak. Honatx lana: *Pluton: hor konpon Marianton*, Zoila Berastegik idatzia.

Iruñeko Udalak, halaber, euskarazko prestakuntza-programak antolatzen ditu. Adibidez, **bertsolaritzan hasteko** programa ikastetxe publikoetan. Horrela, 2014ko urtariletik ekainera, honako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 20 talde eta 441 ikasle aritu ziren: Elorri IP, Mendigoiti IP, Sanduzelai IP, San Frantzisko IP, Patxi Larraintzar IP, Bernat Etxepare IP, Hegoalde ikastola IP eta Ikastola Amaiur IP.

Era berean, **euskarazko XXIII. Sormen Tailerren** edizio berri bat antolatu zen, euskararen erabilera sustatzeko aldera, euskaldunen arteko ezagutza eta harremanak handitzeko bidea eman baitute, sormena eta josteta bultzatzeko jarduera sorta zabala eta erakargarria eskainita. Eskaintza barrenean daude, besteak beste, sukaldaritza, batukada, yoga, euskal dantzak eta pilatesi buruzko urteko klaseak, eta horrez gain, monografikoak ere, hala nola, orientazioa mendian, bertsolaritza, jendaurrean hitz egitea, argazkigintza, lehen laguntzak, bizikleta konpontzea eta balkoian baratze bat egitea. Guztira, 200 lagunek parte hartu zuten.

Lehiaketei dagokienez, Iruñeko **gazteendako XXIV. Literatur Lehiaketa** dago, 14 eta 18 urte arteko gazteei

zuzendua, eta bi modalitate ditu: poesia eta narrazio laburra. Gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako lanak aurkez daitezke. 19 lan jaso ziren narrazioetan, eta 7, poesian. **Haurrendako XXVII. Literatur Lehiaketa** antolatu zen hiriko eta Iruñerriko Lehen Hezkuntzako eta DBHko Lehen Zikloko ikasleentzat. Horren bidez, sormena, idazmena eta adierazpen plastikoa sustatu nahi dira haur euskaldunen artean. Adinaren arabera, modalitate hauek ezartzen dira: pintura edo marrazkia, gai libreko ipuinak edo gai libreko komikiak. 81 marrazki, 61 ipuin eta 55 komiki aurkeztu ziren.

Era berean, laguntza ere ematen jarraitu zitzaion **hainbat udalerriren artean ateratzen den Ze Berri? aldizkariari**, eta 6 zenbaki plazaratu ziren. 2014ko azkenak 69.365 ale izan zituen, hau da, 2013ko azkenak baino 11.665 gehiago, hainbat udal ekimenean sartu baitziren. Haietariko 10.000 Iruñean banatzen dira.

Iruñeko Udalak, bestalde, hiriko hamar kultur eta arte-entitate **lagundu zituen diruz** 2014an euskarazko kultur eta arte-jarduerak egin eta programatzeko. Diruz lagundutako jardueren artean, adibidez, bertsolaritza-txapelketak daude, hiriko lantegiak, monitoreen prestakuntza, hitzaldiak, udako unibertsitateko ikastaroak edota antzerki-saioak. Guztira, 30.909 euro banatu ziren. Honatx zer entitatek jaso zuten dirua: Karrikiri elkarte (4.843 euro), Arturo Campión Elkarte Kulturala (1.312 euro), Euskaldunon Biltoki Elkarte (6.337 euro), Ortzadar Euskal Folklore (622 euro), Ezpondapea (90 euro), Dindaia Fundazioa (8.939 euro), Udako Euskal Unibertsitatea (3.833 euro), Nafarroako Bertsozale Elkarte (1.884 euro), Nafarroako Antzerki Eskola (1.883 euro) eta Nafarroako Kantzarien Biltzarra (1.166 euro).

2014an, gainera, 4 **beka** eman ziren barnetegietan euskara ikasteko ikastaro trinkoetan parte hartzen dutenentzat.

Sanferminak

Ia 1.300.000 ikusle bildu ziren Iruñeko Udalak 2014ko Sanferminetarako antolatu zituen 400etik gora ekitalditan. Kopuru hori 2013koa baino % 18 apalagoa izan zen, eguraldi txarra nagusi izan baitzen. Beste behin ere, partaidetza kopururik handienak, 631.000 ikusle baino gehiago, ikuskizun jendetsuei dagozkie, hala nola su artifizialei (373.000 lagun inguru, Yanguas y Miranda, Armada etorbidea eta Gaztelugibelen), Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren jarraitzaileei (170.000 lagun, eta egunero, batez beste, 21.250 inguru, eta kontuan hartuta uztailaren 12an ez zirela atera, euriak eragotzita). Datu horiek gorabehera, hotzak eta euriak jaitsiera eragin zuten, % 24 jarraitzaile gutxiago izan baitziren erraldoietan, eta % 17 gutxiago, su artifizialetan. Gainera, huts tekniko batek eraginda, ez zen jaurti ongi larunbateko Hermanos Ferrández etxearen bilduma piroteknikoa, eta lehiaketatik kanpo gelditu zen.

Zezenketa-ikuskizunetan (13.000) eta zezensuzkoan (31.300 inguru) ere jendetza nabarmena bildu zen. Ontzat jo zen zezensuzkoaren ibilbide berria, ez baitago horrenbesteko jendetzarik, eta lasterketa seguruagoak egiteko aukera ematen du. Eguraldi txarrak eraginda, ordea, % 65 parte-hartzaile gutxiago izan ziren.

Egitarauko hitzordu musikaletara joandakoen kopurua 469.800 izan zen, hau da, jaietako parte-hartze osoaren % 35. Foruen plazako emanaldietan bildu zen jende gehien (124.250 lagun): hots, 120.000 gaueko kontzertuetan, eta 4.250, Foruen gazte-plazakoetan; hau da, aurreko urtean baino ia % 4 gehiago. Urtetik urtera, gero eta jende gehiago joaten ari da leku horretara: % 13 gehiago, 2011n; % 38 gehiago, 2012an, eta % 25 gehiago, 2013an. Calle 13, Fangoria, Carlos Jean eta Huecco taldeek erakarri zuten jende gehien. .

Gazteluko plazako kontzertuetan 58.300 lagun bildu ziren (2013an baino % 35 gutxiago); Jazzfermín Sarasate pasealekura eraman zen eta 3.360 lagun bildu ziren (jaitsiera nabarmena gertatu zen, aurreko urtean 12.000 lagun bildu baitziren, kokapen berrian jende gutxiago sartzen baita); musika-banden emanaldiak Gurutze plazan egin ziren eta 4.250 bildu ziren; eta Euskal Musikako saioetan, Taconeran, 2.750 lagun. 28.750 lagunek egin zuten dantza Gurutze plazako dantzaldietan, non Los del Río taldekoen emanaldia baita nabarmentzekoa Adinekoen Egunean. Antoniutti parkean, berriz, 46.100 lagun ziren, non 2014an nobedade bat izan baitzen, sei saio egin baitziren arratseko bederatzi eta erdietan.

Honatx musika-emanaldiekin lotutako beste zenbaki batzuk: musika folklorikoak 202.100 lagun bildu zituen 2014an. Hona hemen: Sarasate pasealekuko jotetan, 13.350; txistulariak eta gaitariak Gaztelu plazako dantzaldietan, 6.500; Basotxoko eskualde-musikan, 17.050; uztailaren 6ko Foruen plazako jaialdian, 4.000; gaitarien alardean, 6.000; txistularien alardean, 1.600; eta bertsolarietan, 300; bestalde, kaleko musika etengabea, 153.000, hau da, kalkuluen arabera, egunero 17.000 lagun inguruk gozatu baitzuten kaleko musika hiriko tokiren batean.

177.000tik gora haur eta heldu bertaratu ziren haurrendako eta familiendako jardueretako batera; 2013ko antzeko zenbakiak izan ziren parte-hartzeari dagokionez (179.000 parte-hartzaile). Horietatik, 120.000k Rodezno kondearen plazako haur-parkea gozatu zuten; 8.500k Karlos III.eko haur-entzierroetan parte hartu zuten (aurreko urtean baino jende gehiago bildu zen); 3.000 Haurraren Eguneko entzierrora joan ziren Santo Domingoko aldapara; 20.000k Karlos III.eko oinezkoendako pasealekuko kalejiraren bat ikusi zuten (euriak eraginda, haietako bat utzi zen bertan behera); eta 12.000 Rodezno kondearen plazako Maese Villarejoren txotxongilo tradizionalak ikustera joan ziren.

Rodezno kondearen plaza Merindade plazarekin lotzeko haurrendako trenek 8.500 lagun garraiatu zituzten. Haurraren Egunean, gainera, 4.000 haurrek eta helduk santuari loreak eraman zizkieten, eta 600 lagunek haur-dantzen jaialdian parte hartu zuten. Haiei gehitu behar zaizkie euskarazko bi antzerki-emanaldiak Taconeran ikusi zuten 750 haurrak.

2014an aipatzekoa da *The Hole* ikuskizunak Gayarre Antzokian izandako arrakasta, hamalau emanaldietan ia goraino betea egon baitzen. Guztira, 11.562 ikusle bildu ziren; hau da, La Cubana taldearen *Campanadas de boda* ikuskizunak baino % 67 gehiago.

Gainera, 4.980 lagunek bisitatu zuten egitarauan sarturiko erakusketetako bat. 2.614 lagun joan ziren ikustera Sanferminetako Kartelen Nazioarteko Lehiaketan parte hartutako kartel aukeratuen erakusketa, eta 2.366 Kondestable Civioxera bertaratu ziren, Guillermo Navarroren *A propósito de San Fermín* argazki-erakusketa eta Antonio Laitaren *Ellos también nos miran* margolanak ikustera.

Bestalde, 38.000 lagun inguru bildu ziren txupinazoa zuzenean emateko jarritako bost pantailetako baten aurrean; bereziki da nabarmentzekoa gazteak erruz bildu zirela Gazteluko plazan jarritako pantailan. Era berean, aipatu behar da 6.200 lagun joan zirela eguneroko herri kirolen saioak ikustera, Foruen plazara.

2014an lehen aldiz jaiak denbora errealean eman ziren zuzenean San Fermin 2014 Youtubeko kanalaren bidez. Irudi horiek, aldi berean, Gazteluko plazako pantaila erraldoi batean eman ziren. Kalkuluen arabera, 450.000 lagun inguruk ikusi zituzten irudiak pantaila horretan, jaien uneren batean. Pantaila 16 orduz aritu zen egunean irudiak ematen zuzenean nahiz diferituan, eta ostiralean eta larunbatean, berriz, 24 orduz saio etengabea. Guztira, egitarau ofizialeko 75 emanaldi eman ziren, eta 62 herrialdetako 60.000tik gora lagun konektatu ziren interneten Sanferminetako ekitaldietara zuzeneko seinalearen bidez. Youtubeko kanal horrek 97 herrialdetako 127.000 bistaratze izan zituen, uztailaren 6tik 14ra.

Bestalde, jaiak hogeitateren babesak izan zuten; guztira, 203.310 euro eman zituzten, aurreko urtean baino % 11 gehiago. Dirutza horretatik, 133.110 euro zerbitzuetan eman zen, eta 70.200 euro, berriz, diru-ekarpen moduan. Honatx babesle nagusiak: Eroski (27.000 euro), Caixabank (18.000 euro), Bar Mikael (5.500 euro) eta Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutua (5.000 euro).

Aldapako San Fermin

Irailaren 26tik 28ra, Aldapako Sanferminak ospatu ziren, eta Iruñeko Udalak prestaturiko egitarauan hainbat gauza sartu ziren, hala nola haurrendako ekitaldiak, kontzertuak, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren irteera, Santuaren ohorezko prozesio tradizionala, eta su artifizialak, Gazteluko plazako lurretik jaurtiak; 2014an, azken ekitaldi horren laugarren edizioa egin zen. Bestalde, lehen aldiz Burgoen plazan, ostiral gauez, G-9ko

Unibertsitateen arteko III. Musika Lehiaketa egin zen, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Udalarekin elkarlanean antolatutik. Era berean, larunbat arratsalde zinu-dantza ikuskizun bat eman zen Karlos III. ean aire zabalean, Gorren Nazioarteko Egunaren karira eta Nafarroako Gorren Elkartearekin elkarlanean (ASORNA). Aldi berean, Nafarroako Jotaren I. Bilkuraren karira, abestiek Alde Zaharreko karrikak girotu zituzten.

Txikiendako eskaintzan, San Frantzisko plazan adin guztiendako jolasak izan ziren, haur-parkea jarri baitzen; hau da, gominga, puzgarriak, dino-pistak, mini-bamper zirkuituak, ohe elastikoak, mahai-futbola eta aire-mahaiak karpetan, besteak beste. Amaitutakoan, hurrendako entzierroa egin zen Zapateria kalean. San Nikolas plazan, magia-ikuskizun bat egin zen, bai eta txotxongilo-saio bat ere.

Musika ere jai-egitarauaren ardatza izan zen. Izan ere, G-9ko Unibertsitateen arteko III. Musika Lehiaketaz gain, bestelakoak ere aipatu behar dira, hala nola udal-gaitarien eta -txistularien dianak, Txirdil eta Zuperri taldeen fanfarre- eta txaranga-musika, Nebari autorearen kontzertu bat Pablo Sarasateren omenez, eta La Pamplonesa emanaldia Gazteluko plazan. Eta amaiera gisa, Queen taldearen omenezko kontzertu bat, Play the Game-ren eskutik.

Pirotecnia Zaragozana etxeak berriz ere su artifizialak jaurti zituen Gazteluko plazako lurretik. Ikuskizuna 2011n berreskuratu zen jai horietarako. Gainera, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa bi aldiz atera zen, bazterrak ederki girotuz. Igandean, Aldapako San Fermin plazara joan ziren, bertako elizan santuaren omenezko meza eman baitzen, eta bertan Iruñeko Ahots Baxuen Abesbatzak abestu zuen. Ondotik, Aldapako San Ferminen irudia prozesioan atera zen kalez kale, La Pamplonesa, konpartsa eta udal-dantzarekin batera. Jaietako azken ekitaldia **ezpata-dantza** da, udal dantza-taldeak Udaletxe plazan dantzatutakoa.

Gayarre Antzokia

2014an, Gayarre Antzokian guztira ikuskizun-saioak 216 izan ziren, eta 86.188 ikusle bildu ziren; hau da, 399 ikusle batez beste jarduera bakoitzeko. Eskaintza barruan gauza asko daude, hala nola Eszena eta Desgaitasuna zikloa, familiendako jarduerak, eta hainbat estilotako kontzertuak; La Pamplonesa taldearen musika, besteak beste. Jende gehien abenduan joan zen (12.091 lagun); gero, uztailan (11.892 lagun) eta urrian (9.618 lagun).

Ikusleen ia % 30 (25.630) urtarrila – ekaina eta urria – abendua denboraldietako programazioko 67 ikuskizunetako bat ikustera joan ziren. 15.032 lagunek ikusitako 29 jarduerak, berriz, antzokiak entitate eta taldeei eskaintzen dizkien alokairuen barnean zeuden. Gainera, 15.207 lagun udako umorezko 22 ikuskizunetara joan ziren eta 10.107, antzerkia familiartean programaren barneko 21 saioetara. 2014ko zenbakien osagarri, Udalak 15 jarduera antolatu zituen (9.346 ikusle), 45 jarduera osagarri izan ziren (3.246 ikusle), ikastetxeetako 4 jarduera (2.604 lagun), interprete handien 6 saio (2.920 ikusle) eta 7 ekoizpen propio (2.096 ikusle).